

Nazioarteko Bikaintasun Campusean aurkeztu zuen MUK bere proiektua

2010/10/20

Nazioarteko Bikaintasun Campusa 2010, Hezkuntza Ministeritzak antolatzen du eta aurtengoa bigarren edizioa da.

Mondragon Unibertsitateak bere autagaitza aurkeztu zuen maiatzean eta lehenengo fasean, 14 proiektu aukeratu ziren, horien artean, MUkoa. Edizio honetan aukeratutako, unibertsitate pribatu bakarra izanik.

Atzo, bigarre faserako aurkezpenak izan ziren eta bertan, 22 proiektu aurkeztu ziren, aurtengo 14ak eta iaiztik zetozen beste 8.

Mondragon Unibertsitatearen proiektua, transferentzian oinarritzen da. Ezagutza sortu eta gizartea eraldatzeko transferitu.

Aurkezpen honetan, Mondragon Unibertsitatearen autagaitza babesten, unibertsitateko hainbat pertsonetaz gain, besteak-beste, Oñatiko Alkatea, Irungo Alkatea, Fagorreko Presidentea eta Garaiaiko Gerentea izan ziren Madrilen.

Bihar, urriaren 21a, arratsaldean emango dira Nazioarteko Bikaintasun Campusa 2010 emaitzak.

